

DICCIONARIO 3000 HIZTEGIA

Karmel aldizkariaren iazko azken zenbakian ematen genuen *3000 Hiztegiaren* albistea. Ordurako lana amaiturik genuen eta egileok orrazten, azken ikutuak egiten ari ginen. Beti azkenetan zelakoan, uste baino denbora luzeagoa eman behar izan genuen. Behin hartaraz gero, ezin genuen eskutik utzi astinaldi on bat material guztiari eman arte. Ikusi, aztertu, haztatu, konparatu, egokitu... hitz eta formekin borrokan, sortu ohi ziren milaka zalantza argitu nahirik. "Finis coronat opus" esaten genuen latin hizkuntza orain baino etxeago zitzaigunean. Azkenez, hiztegi mardul honek ikusi du argia. *Karmel* aldizkarian, oraingoan, lehen baino berri zehatzagoa, alaiagoa eman nahi genuke. Jadanik ikasle, irakasle, itzultzaile, kazetari eta edozein euskaltzaleren etxeetan da hiztegia. Badakigu hainbat itzultzailek laneko tresna oso baliagarritzat eskumenean dutela. Salmenta oso ongi doa. Publizitate zaratatsurik ez du izan, baina ahoz aho, ikastetxerik ikastetxe, lagunaren artean bertatik bertara zabaldu da *3000 Hiztegiaren* kalitatearen sona. Hilabete eta erdira goaz liburuaren aurkezpen publikoa egin zenez gero, eta "Bostak Bat" Lantaldea berrinprimaketarako urratsak ematen ari da.

Arnasa luzeko lana izan dugu hau. Amaituko ez amaituko, epeek gainez eginda, larriminetan jardun ondoren, ia amets txar bat zirudiena azkenean emaitza on eta pozgarri bihurtu zaigu.

Liburua, dagoeneko ezaguna da, baina lankide, adiskide, euskaltzale, komunikabide eta gainerako guztien aurrean aurkeztu ondoren, gure aldizkari honetan ere zer den eta zer berri dakarren azaltzea nahi nuke.

Egia esan, hitzen itsaso zabalean igeri egin ondoren, hor barruan zer berri den labur esan beharrenden esan beharrez, ia hitzik gabe gelditzen naiz edota berbak lauso artean galdurik. Dena dela, zertxobait esango ahal dut eta hauxe da otu zaidana:

Etorkizuna eta denboraren joate azkarra adierazi nahi duen izenburua: *3000 hiztegia*. 2000 ere ez ote zen aski...? Gure aurreko lana *Europa Hiztegia* izenez bataiatu zutenek oraingoan ere ez dute, antza, atzean gelditu nahi izan eta 3000raino salto egin digute. Bego horretantxe izenaren kontu hori eta goazen izenetik izanera.

Orain dela hamahiru urte hiztegi gintzari ekin genionean eta harrezkero, beharrezko nahiz komenigarri den ekarpena euskarari egitea izan dugu gogoan. Hau da, lexikografia arloan izan zitekeen edozein hutsune betetzea; beste inork landu gabeko eremuak lantzea edota, behintzat, inori enbarazurik egin gabe, geure-geurea izango zen ekarpena egitea. *Europa Hiztegiaren* hitzaurrean hauxe idazten genuen hitzez hitz: "Gure asmoa, garaian garaiko premiei erantzutea eta euskarazko bidea hautatu duten eskola, alfabetatze-talde, guraso nahiz beste edonori, material egokia eskaintzea izan da". Oraingoan biraketa osoa eman dugu. Hiztegi hau ez da euskara hutsezkoa, baina garaian garaiko premiei erantzutea eta beharrezko nahiz komenigarri den ekarpena euskarari egitea gogo-gogoan izan dugu; helburu horrek berean dirau. Orain dela hamar urtetik harantz, euskara hutsezko hiztegien premia larria zen. Zorionez, hutsune hori egoki samar bete da, guk geuk eta beste hainbatek egindako lanari esker. Azken urteotan hiztegi elebidunen nahia eta beharra somatzen zen. Horrela, euskara hutsezko hiztegiaren mugak gaindituz, euskara/gaztelania gaztelania/euskara eta hainbeste gehigarri didaktiko

A

a: (a) primera letra del alfabeto

a: *interj.* ¡ah!

-a: *utz.* 1 forma del artículo de 2.º grado en absoluto singular: el, la, lo; **txoria etorri da:** ha venido el pájaro; **txoria erosi du:** ha comprado el pájaro. 2 *partícula interrogativa postverbal;* **egin dazua?:** ¿lo has hecho?; **etorri dea?:** ¿ha venido?

aarondar: *iz., izlag.* eta *izond.* aaronita

aba: *iz.* padre (religioso o sacerdote)

ababasazki: *izond.* caótico, ca

ababor: *iz.* babor; **ababorreko aldera:** a la parte de babor; **ababorrera:** a babor; **argi gorria ababorrean jartzen da eta berdea istriborrean:** la luz verde se coloca a babor y la verde a estribor

abade: *iz.* 1 sacerdote, cura; **abade jaun (edozein apaiz diozesiar):** señor cura (cualquier sacerdote diocesano). 2 abad

abadegai: *iz.* aspirante a cura, seminarista

abadeki: *iz.* seminarista

abadene: *iz.* casa cural

abadesa: *iz.* abadesa

abadetar: *izond.* clerical

abadetasun: *iz.* curato, sacerdocio

abade(tu): 1 *da:* hacerse cura, ordenarse de sacerdote; **orain berrogeita bat arte Gasteizen abadetu zifien:** hace cuarenta y un años te ordenaste de cura en Gasteiz. 2 *du:* ordenar de cura, ordenar de sacerdote; **nork, zein apezpikuk abadetu zintuzten?:** ¿quién, qué obispo te ordenó de sacerdote?

abadetxe: *iz.* rectoría, casa cural, casa parroquial

abadetza: *iz.* 1 presbiterado, sacerdocio (katolikoa);

abadetzan dihardu: trabaja en el sacerdocio. 2 sacerdocio (apaiz sekularrena); **fraidetzatik abadetzara aldatu da:** del estado de fraile ha pasado al sacerdocio secular

abadia: *iz.* 1 abadía (titulua). 2 abadía (monastegia)

abadira: *iz.* abadejo

abadota: *iz.* 1 zángano (abeja). 2 avispa. 3 moscón

abagadune: *ikus* abagune

abagune: *iz.* ocasión propicia, coyuntura

abail(du) da, du: 1 agotar, extenuarse; **zerk abaildu zaitu horrenbeste? Ez dakit zerk, baina zeharo abaildu naiz:** ¿qué te ha agotado tanto? Ignoro el qué pero estoy extenuado. 2 abatir, desalentar(se); **ezerk**

ere ez duela abailtzen, baina berri hori entzutean apur bat abaildu da, bai: que nada le abate, pero al enterarse de esa noticia bien que se ha desalentado un poquito. 3 abatirse los árboles por el peso de frutas; **sagarrek abaildu dute sagarrondoan:** el peso de las manzanas ha abatido el manzano; **sagarren sagarrez sagarrondoan abaildu da:** de tanta cantidad de manzanas se ha abatido el manzano

abaildura: *iz.* 1 fatiga, agotamiento. 2 abatimiento (de un árbol por el peso de frutas)

abailgarri: *izond.* 1 agotador, ra; fatigoso, sa. 2 desalentador, ra

abakando: *iz.* (Zool.) bogavante

abako: *iz.* 1 (Mat.) ábaco, numerador, tabla(s), tanteador. 2 (Arkit.) ábaco, parte superior del capitel en forma de tablero

abal: *iz.* aval; **abal absolutua:** aval absoluto; **abal mankomunatua:** aval mancomunado; **abal mugatua:** aval limitado; **abalik gabeko kredituak:** créditos sin avales; **abal solidarioa:** aval solidario

abalatu(du) du: avalar

abaldun: *izond.* avalado, da

abal-emaile: *iz.* avalista; **abal-emaileen datuak:** datos del avalista

abandona(tu) du: abandonar

abandonu: *iz.* abandono

abangoardia: *iz.* vanguardia; **ez jakin abangoardian ala atzegoardian dagoen arrisku handiago:** no se sabe si hay más peligro en la vanguardia o en la retaguardia; **abangoardiako pintura:** pintura de vanguardia

abangoardismo: *iz.* vanguardismo

abangoardista: *iz.* vanguardista

abaniko: *iz.* abanico

abanikogintza: *iz.* abaniquería

abant egin du: remar (avanzar)

abantada: *iz.* impulso

abantaila: *iz.* 1 ventaja; **horrek baditu bere abantailak:** eso tiene sus ventajas. 2 provecho, beneficio, utilidad; **horrelakoetan ere bere ona eta abantaila ateratzen ditu:** aún en esos casos saca su bien y beneficio

abantaila har(tu) du: aventajar, mejorar

abantailagarri: *izond.* ventajoso, sa

A

a: (a) *f.* alfabetoaren lehen letra
a: 1 *a)* (adlativo local) -ra, -rat; *voy a la calle:* kalera noa; *a los montes:* mendietara. *b)* (adlativo de seres vivos) -(ren)gana, -(ren) baitara; *viene a donde su madre:* bere amagana dator, bere amaren baitara dator; *viene a donde sus padres:* bere gurasoengana dator, bere gurasoakana dator, bere gurasoen baitara dator. *c)* (a + verbo) -(z)era; *vengo a ver, a traer:* ikustera, ekartzera dator. 2 (dativo) -i; *al perro le ha puesto por nombre Píntto:* txakurrari Píntto izena jarri dio; *¿a qué perro?:* zein txakurri?; *les ha dado un beso a sus padres:* bere gurasoei musu bana eman die. 3 (acusativo; no tiene traducción) *le ha dicho a Berna que ama a Begoña:* Begoña maite duela esan dio Bernari. 4 (modal) -z, -ka, -(z)en, -an; *a mano:* eskuz; *a bofetón:* zaplaka; *a besos:* musuka; *aprender a comer:* jaten ikasi; *a ciegos:* itsumustuan, itsumusteka; *a espina:* sardinezurka; *a espinapez:* sardinezurka; *a instancia de parte:* alderdi batek eskaturik; *a la sazón:* orduan; *a malas:* gogorcan; *a ojo:* begira, begiz; *a su prudente arbitrio:* norik bere erara; *a título gratuito:* dohain bidez; *a título oneroso:* kostu bidez; *a título particular:* norbanako gisa; *a tresbolillo:* hiruzuloka. 5 *a ver si:* ea; *a ver si viene:* ea datorren. 6 (adver-saívo) gorabehera; *a pesar de lo expuesto:* azal-dutakoa gorabehera
aaronita: *adj.* sarondar
abacería: *f.* jakidenda
abacero, ra: *m. y f.* jaki-saltzaile
abaco: *m.* abako
abad: *m.* abat, abade
abadejo: *m.* 1 (Zool.) abario, abalu, ahadira. 2 (Zool.) txepetx
abadesa: *f.* abadesa
abadia: 1 (dignidad) abadía. 2 (monasterio) abadía, abate txec
abajo: 1 *adv.* 1. (dónde) behean; *estoy aquí abajo:* hemen behean nago; (dirección) beheara, azpira, beheal-dera; *ir abajo:* beheara joan; *véase más abajo:* ikus beheara(txoa)go; *río abajo:* erreka beheara / errekan beheara; *del rey abajo:* erregeandik beheara / errege-gandik hasita; *viene de (desde) abajo:* behetik dator / azpitik dator; *lo examinó de arriba abajo:* goitik

behera, guztiz, zehatz-mehatz, arakatu zuen; **volver de arriba abajo:** azpikoz gora irauli edo ipini; **ca-beza abajo:** buruz beheara; **boca abajo:** ahozpea. 2 *adj.* (de abajo) beheko, azpiko; **La parte de abajo:** beheko alde / azpiko alde; **el piso de abajo:** beheko etxebizitza; **el de abajo:** behekoa; **el abajo firmante:** beheko sinatzailea; **los de abajo:** behekoak; **el tornillo de abajo:** azpiko utorloja. 3 *interj.* beherat, kuku!; **jabaja la represión!:** beheara errepre-sioa! / kuku errepre-sioa!
abalanzar: 1 *vt. igualar, equilibrar:* berdin(du), or-ka(tu). 2 *vr. lanzarse:* oldar(tu); **las govietas se abalan-zan al agua en busca de peces:** kaiok arrainen bila oldartzen dira uretara. 3 *vr. fig. lanzarse temerariamente:* huts edo bete abia(tu); **se abalanzó al mar del mundo:** munduko itsasora abiatu zen huts edo bete
abalizamiento: *m.* 1 (Mar.) baliza-ezartze, baliza-jartze. 2 markatze, seinatze
abalizar: *vr.* 1 (Mar.) balizak jarri. 2 marka(tu), seinala(tu)
aballar: 1 *vt. abair:* apa(du), beheara(tu), eraits(i). 2 *vr. rebajar los colores:* ilun(du), motel(du)
abanderado: *m.* banderadun
abanderar: *vt.* (Der.) matrikula(tu), banderape(tu); **al-gunas empresas vascas han abanderado sus barcos pesqueros en Inglaterra:** zenbait euskal enpresak In-galaterran matrikulatu dituzte euren arrantuntziak
abandonado, da: *adj.* 1 *niño/a abandonado/a:* uriko. 2 *persona abandonada:* dandar, runtun. 3 *sucio:* bast. 4 *deslái, deslái-tu.* 5 *mal-dar, patar, narraz.* 6 *utzi;* **es un hombre sabio y espabilado, pero abandonado:** gi-zon jakintsu eta azkarrá da, baina utzia
abandonar: 1 *vt. dejar, renunciar:* utzi(i), laga(tu); **abandonar una empresa:** ekintza bat utzi, zoko-rra(tu); **le hicieron abandonar su cargo:** bere kar-guari utzarazi zioten. 2 *vt. desamparar:* eskutik utzi. **abandona(tu), bere gisa utzi, deslái(tu); abandonaron a sus hijos:** euren haurrak abandonatu zituzten; **esta es gorda, los blancos han abandonado a los negros en terrenos de los negros:** zuriak beltzak beltzen le-kuetan deslái-tu dituzte, han beltza! 3 *vr. repudiar los huevos o las crías un ave:* gorrota(tu), zapuz(tu). 4 *vr. renunciar, dejar, ceder:* alde batera utzi(i), amain

jasotzen dituen hiztegia burutu dugu. Gure asmoa hiztegi didaktiko aberatsa egitea zen. Ez hiztegi guztiz osatua egitea edota euskal lexikoaren altxorra bere osotasunean biltzea, hori ia ezinezkoa baita. Beraz, sarrera-kopuruen gaintik, hiztegi didaktikoaren aukera izan da gurea.

1.514 orrialde dituen hiztegi honek 93.000 sarrera inguru ditu eta 130.000 adiera. Adibideak, ostera, kontaezinak. Kopuru horiek ez dira zehatz-zehatzak, gutxi gorabeherakoak baizik. Zer sartzen da sarrera eta gaincrako horietan?


- Arlo desberdinetan beharrezkoak eta usu erabiliak diren hitzak.

- Hitzen arteko erlazioa adierazteko hainbat koadro didaktiko. Hori dela eta leku berezia eman diegu adibideei, esaldi eginei nahiz esapideei.

- Era berean, osagarri gisa eta beti ere asmo didaktiko honek eraginik, liburu askotan barreiaturik egon ohi diren hizkuntzazko jakingarrien bildumatxoa; hala nola: aditza, deklinabidea, atziki-aurrizkiak, puntuazio-zeinuak, zenbakien idazkera, orduak euskaraz erabiltzeko era eta abar.

Hiztegiaren egituratzea eta irizpideak

a) Euskara-gaztelaniazko partean, alde batetik euskarak mendez mendeko ibilaldi luzean sortu dituen hitzen altxorra jaso eta gaurkotzera jo dugu, jendearen esku, era erabilgarrian jarritz. Horretarako, R.M. Azkue, L. Akesolo, L. Mitxelena, I. Sarasola, *Europa Hiztegia*, *Hiztegia 2000*, *Hiztegi Entziklopedikoa*, *UZEI* eta abar izan ditugu kontuan. Argitaraturik dauden hauetaz gain, Lino Akesolok "Bostak bat" lantaldearentzat beren-beregi osaturiko zerrenda luze bat bere ohar eta guzti erabili dugu. Gainera, azken urteotan, Euskal Herri osoko ordezkarien artean zenbait arlotako lexikoa finkatu beharrez egindako lanaren emaitza ere jaso dugu; hots, elkarlanean burututako zerrenda bateratuak: administrazioari,



nekazaritzari, ogasunari, trafikoari eta abarri buruzkoak. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle-talde batek eginiko hitzzerrendak... Jakina, hiztegi honek etxetik bertatik jaso du hitz-altxorrik handienetakoa; guk geuk eginiko aurreko hiztegietatik, alegia. Beraz, *Europa Hiztegiak* eman dio bere egitura osatzeko ardatza eta haren iturriek eta beste batzuek hemen izan dute isuria.

Euskalkien presentzia ongi ziurtaturik dela uste dugu. Izan ere, alde batetik Azkue, Akesolo, Mitxelena eta abarren lanak izan ditugu euskalkien altxorra gure eskumenean jartzeko; bestetik, berriz, elizako irakurgaiak erabili izan ditugu. Elizako testuak hiru bertsiotan datoz: bizkaieraz, gipuzkera-nafarreraz eta lapurtera-baxenafarreraz. Gure ustez balio handikoak dira testu hauek, alde guztietakoek talde-lanean burutuak eta herriak entzute hutsez jasotzekoak direlako.

Euskara/gaztelania atal honetan, mendez mende hitzek izan duten erabilerak markatzen du lehentasuna. Horregatik erraz leku egin diegu euskalkietako hitzei, nahiz eta *ikus* delakoaren bidez euskara baturako egokiago den hitza seinlatu irakurleari.

b) Gaztelania-euskarazkoari ekiterakoan, gutxi landutako eremua zela ohartu ginen. Guretzat ere, euskara hutsezko hiztegietan trebatuak ginen eta, bide ezezaguna zen. *Hiztegia 2000* eta Plazido Mujikaren *Diccionario Castellano-Vasco* zirenia lagungarri bakarrak. Bai, badira beste hiztegi elebidun batzuk ere, baina gainerako guztiak gure helburuetatik at zeuden. Plazido Mujikarena, egitura zabalekoa izan arren, antzinakoa izanik, euskara batutik urruti dago. *Hiztegia 2000* ere, ekarpen handia egiten duen arren, gure asmoetarako nahiko txiki gelditu da; beste aldetik, burutu zenetik hona euskarari buruzko ikerlanek izan duten gorakada kontuan izanik, pixka bat zaharkitua ikusten genuen. Hala ere, bi hiztegi hauetan oinarriturik burutu dugu hiztegiaren gaztelania/euskara delako partea. Gaztelaniari dagokionez, *Diccionario de la Lengua Española* "Real Academia Española"rena izan dugu gidari eta oinarri.

Laburbildurik, honako hauek lirateke hiztegi honen alderdi on batzuk egileon ikuspegitik:

. Euskararen mendez mendeko aberastasunak biltzea eta gaztelaniazko berezitasunei euskarazko baliokide egokiak ematea.

. Generoari, orain arteko hiztegietako joerak gaintuz, osoko erantzuna ematea. Hiztegi honetan, aparteko arretaz erabili da generoa, maskulinoa nahiz femeninoa. Gaztelaniaren eta euskararen arteko zubi egokia egin nahi izan da, horrek hainbat zailtasun ekarri badigu ere. Pila-pila dugun arazo honi ere erantzun orokorra eta zehatza eman diogula uste dugu.

. Zalantzazko hainbat hitz argitzea, Euskaltzaindiaren arauetara jarraituz batasun bidean urrats berria emanez.

. Hizkuntza bakoitzari dagozkion ezaugarri gramatikalak eta hainbat hitzen ezaugarri zientifikoak aurkeztea.

. Euskaraz moldatu nahi duen edonori zuzendua eta bereziki egunero sortzen diren hizkuntz eskakizunen aurrean, baliabide praktikoa burutzea.

. Hainbat gai, hala noia, kirolak, osasuna/gaixotasunak, matematika, aditza, deklinabidea, atzizki-aurrizkiak, komunikazio-funtzioak, bertsolaritza, testu motak... funtzionaltasun eta praktikotasun irizpideei jarraiki, erraz kontsultatzeko eran, koadroetan biltzea.

Jakina denez, hizkuntzaren alderdia hartu dugu soilik aintzat, ez entziklopediari dagokiona; horregatik Euskaltzaindiaren arau eta gomendioei lege handia izan diegu eta albait ondoen bete.

Euskara bizia eta gaur eguneko premiak gogo-gogoan izan ditugu hiztegia egiterakoan.

Hiztegi honen beste alde on bat, gure ustez, itzultzaileentzat tresna edo lagungarri oso egokia izatearena da.

Beraz, hiztegi moderno, aberats, erabilgarria gauzatu nahi izan dugu, bereziki euskara sakontzen ari direnentzat, irakasle, esatari, kazetari, itzultzaileentzat, euskararen eguneroko langile aspergaitzak direnentzat... gaztelaniazko esapideen baliokide egokiak eskainiz, erdal kalkoak bazter ditzaten.

Azkenez, zuri, irakurle horri, liburu hau eskuratzeko aholku eman gabe ezin etsi. Elaberriak behin irakurriz gero, ez da berriro irakurtzeko gogorik izaten. Hiztegia kontsulta-liburua da; lagungarri eta gidari egunero aldamenean, esku-eskura behar duguna.

Luis Baraiazarra Txertudi

BIZKAI'KO ITXASERTZA

*San Nikolas, Izaro eta Gaztelugatxe
ugarteak.*

Aldi baten mistiku eta itxas bideetako
ameslarien kabi. Gaur itxas laino eta bitsetan,
bakardadearen ziñaldari.

Bizkai'ko itxasertza Saturrarango Eskilantxarri aitzetik asi eta
Trapagaran eta Mioño bitartean amaitzen da.

Ain zuzen itxasertz oneri dagokiezan kontu zarretan irakurten
da, Eskilantxarri aitz onetara urreratzen zirala lengo denboretan
Iruña'ko gotzaiñak Kantauri itxas geldo eziñera konjuroak
egiten, batez ere Bermeo aurreko Izaro ugartetik urteten eben
neskarraiñak (sirenak) Gipuzkoa'ko uretara sartu ez eitezan
gipuzkoarrak zirikatzen.

Aldi aretan ia Bizkai guztiko ardurea euker Kalagorriko
gotzaiñak Mutriku'ko Astigarribi'auzoko Ander deunaren eleiza
euren menpe euker, baña ez Mutriku'ko parroki nagusirik,
emen Iruña'koa zalako kapadun.

Gure ardurea, gaur, itxasertz onetan itxasoz barik, ugarterik
ugarte, itxasoak ingurutzen dauzan aitz mutur bakanei gain-
gaiñeko ikustaldia egitea da.